

HOME / GAIAK / LIBURUAK / [BIDEA] 'TERMITA' ELEBERRIA, AHOTS DESEROSO, ASKE ETA ERREBELDE BAT



Garazi Albizua (argazkia: Kultur Sharea)

BIZKAIA LIBURUAK LITERATURA NABARMENDUAK PORTADAN

[BIDEA] 'TERMITA' ELEBERRIA, AHOTS DESEROSO, ASKE ETA ERREBELDE BAT

By Ainhoa Loes Aranda / 2026-06-24



2025eko Euskadi Literatura Saria irabazi zuen *Termita* eleberririk euskarazko bertsioa du jada. Garazi Albizua idazlearen lana Bego Montoriok euskaratu du, eta gaur aurkeztu dute Donostian, Erein argitaletxearen eskutik.

Garazi Albizua idazlearen (Santurtzi, 19859 *Termita* eleberririk euskaraz argitaratu du Erein argitaletxea. Jatorriz gaztelaniaz kaleratu zuen egileak 2024ko azaroan, Galaxia Gutenberg argitaletxearekin, eta urtebete geroago Euskadi Literatura Saria eskuratu zuen lan horri esker. Orain, Bego Montorioren itzulpenarekin, euskal irakurleek ere eleberririk irakurtzeko aukera izango dute.

Lehen pertsonan kontatutako nobelak amamarekin bizi den eta teleoperadore lanetan ari den emakume baten egunerokoa kontatzen du. Ahots narratiboa ironikoa, errebelde eta aurreikusiz ezina da, eta gizarte patriarkalak emakumeei ezarritako rol eta ereduie etengabe egiten die aurre.

Eleberririk protagonistak ez du betetzen gizarte patriarkalak emakumeei ezartzen dizkien eruedetako bat bera ere: ez da ama, zaintzaile izateari uko egiten dio, gorputz ez normatiboa du eta sexualitatea modu askean bizi du. Horrek guztiak bazterreko subjektu bihurtzen du besteen begietara, baina kontakizunak ez du biktimizatzen jotzen. Aitzitik, protagonistak marjinaltasun horri aurre egiten dio, errukirik eskatu gabe eta tonu zorrotz zein ausart batez.

Kapitulu laburren bidez, lanak janariarekiko harremana, sexua, lan-prekarietatea, maitasuna eta pobrezia bezalako gaiak jorratzen ditu. Aldi berean, gizarte-bazterketa eta indarkeria belaunaldiz belaunaldi nola transmititzen diren erakusten du, bereziki emakumeen gorputzetan.

Nobelaren beste ardatz nagusietako bat bilobaren eta amamaren arteko harremana da. Albizuak familia-lotura hori estereotipoetatik aldentuta irudikatzen du, maitasunaren eta zaintzaren inguruko ikuspegi originala eskainiz.

Termitak gizarte eta familia konbentzioei ez ezik, lanaren, afektuen eta kapitalismoaren logikei ere egiten die aurre. Era berean, nobelaren egitura eta fikzioaren ohiko moldeak ere zalantzan jartzen ditu, estilo trinko eta landu baten bidez.

2025ean, Euskadi Literatura Saria jaso zuen lanak. Orain, irakurle berriengana iristeko aukera izango du, gaur egungo euskal literaturan oihartzun handiena izan duten eleberrietako bat euskarara ekarrita.

Zabaldu:

Tags: Bego Montorio, Erein argitaletxea, Garazi Albizua, *Termita* eleberririk



ANTOINE COMPAGNONEN MONTAIGNERI BURUZKO LIBURUA EUSKARATU DU JOXAN ELOSEGIK

UTZI ERANTZUNA

Iruzkinak bidaltzeko saioa hasi behar duzu.




Lege oharra

albistek@kultursharea.eus

Publizitatea

LAGUNTAILEAK



KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA
DEPARTAMENTO DE CULTURA Y POLITICA LINGÜISTICA



LANKIDETZAK

